LAZKAOKO
UDALA

2021EKO UZTAILAREN 26KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko uztailaren hogeita seian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2021eko uztailaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2021eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 43 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA HAMASEI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST euro eta HOGEITA LAU zentimo (96.495,24 €)takoa onartzea erabaki da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Ifarra Hegoa lankidetza programa.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du Aita Pio Ospitaleko sendagileen prestaketa proiektuari dirulaguntza emateari buruz ez dutela informazio nahikorik.

Alkateak argibideak eman dizkio adierazitako proiektuari buruz.

Ormazabal zinegotziak esan du ez zaiela informazio nahikoa iruditzen eta beste guztiak ondo ikusten badituzte ere, hau ez dutela onartuko eta bozketa bereiztua egitea galdegiten du.

Alkateak erantzun dio gaia bere osotasunean planteatzen dela gizarte zerbitzuetatik bidalitako txostenean jasotzen denez, eta bozketa bakarra egingo dela.

Gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), jarraian adierazten diren erakundeei eta zehazten diren proiektuengatik, zerrendatzen diren diru laguntzak ematea erabaki du:

LAZKAOKO
UDALA

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
Donostiako Elizbarrutiko Caritas	N'Daliko Aita Pio ospitaleko sendagileen prestaketa proiektua	16.000,00 €
Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza	Rwandarwejoko egitasmoan eraikin berriak eraikitzeko eta Giharako jangela zabaltzeko (Rwanda).	16.000,00 €
Taupadak GKE	Genero berdintasuna sustatzeko sarea sendotzea (Bolivia).	750,00 €
Activos por un mundo solidario	Inklusioa sustatu, aniztasun funtzionala duten pertsonekin inklusiorako eta bizi kalitatea hobetzeko baliabide zentroa (Nikaragua).	3.000,00 €
Herriak elkarlanean	Lasarre eskola berria Haitin (Haiti).	3.050,00 €
Zaporeak	Lesvosen (Grezia) dauden errefuxiatuei elikadura duina et elikagarria emateko eskubidea.	5.000,00 €
Itsas salbamendu humanitarioko elkartea	Osasun sorospena Chios uhartean (Frantzia).	1.700,00 €
Galdakaoko GBGE boluntarioen gizarte elkartea	Emakumeen etxea eta baratzea (Mongolia).	1.500,00 €
Egoaizia	4 landa-eskolatan kultura arteko hezkuntzaren giza garapena eta garapen soziala hobetzea (Peru).	2.000,00 €
Abay Euskadi	Hezkuntza-azpiegiturak handitzea Hiddiko ikastetxe publikoan (Etiopia).	3.000,00 €

Laguntzaile gazteei bekak.-

Laguntzaile gazteentzat bekak emateko egindako deialdian izen emandakoen eskaerak aztertu ondoren, eta gizarte zerbitzuetako zinegotziaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erbaki du:

- Ioritz Barandiaran Eizmendi lazkaotar gazteari 2021eko uztailaren 30etik 2021eko abuztuaren 21era Buena Vista-n, Costa Rica, dortoken babeserako eta bertako komunitatearen kontzientziaziorako burutuko duen boluntario bidaia egiteko 1.161,52 €ko diru laguntza ematea.

IV.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

2020-2021 ikasturtean euskara ikasten amaitu duten ikasleei dirulaguntzaren amaierako ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Bere espedientean dauden datuen arabera ikasle bakarra da dirulaguntzaren amaierako ordainketa egitea dagokiona, eta Euskara batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartu du: ikasle horri, 272,40 € ematea.

LAZKAOKO UDALA

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kulturako zinegotziak dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakiak hartu ditu:

- Gerriko kultur elkartea.-

Mintzalaguna proiekturako 2021eko dirulaguntza onartzea eta 5.050 €ko lehen zatiaren ordainketa orain egitea.

- Lazkao Kirol Elkartea.-

Txirrindularitza sailak San Prudentzio jaietan, Lazkaon eta Lazkaomendin antolatutako 2 txirrindulari proben antolaketagatik, guztira 6.766,17 € ematea.

VI.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK .-

Jarduera ekonomikoko batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jarduerei dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- COVID-19ren egoeraren aurrean osasun prebentzio neurriak bermatzeko:

Merkataria	Zenbatekoa
ALAI HORTZ KLINIKA SL	504,36 €
AMEBI SAGARDOTEGIA CB	90,62 €
LORENA SORALUZE ARTANO	80,80 €
OPILTXO SL	38,92 €
GUZTIRA	**714,70 €**

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2021eko apirilean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei zazpigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Merkataria	Zenbatekoa
MARIANA OSTERTAG (MAMUFO)	10 €
GUZTIRA	**10 €**

LAZKAOKO
UDALA

VII.- LANDA LUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko batzordetik, baserritar ekoizleei 2021eko erosketa bonuen ordainketa egiteko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako erabakia hartu du :

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2021eko apirilean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat base-

rritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei bosgarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Baserritarra	Zenbatekoa
ASIER MUXIKA ZUBIARRAIN	180 €
AITOR IZUTETA BARANDIARAN	525 €
IKER SUKIA MESAS	415 €
GUZTIRA	**1.120,00 €**

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal eta Amundarain zinegotziek (EH Bildu) Kanpandegi industrialdearen garapenari buruz galdetu dute eta alkateak galdetutakoari erantzun egin dio.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO
UDALA